

FAMILIA ARTEAN

ETXETIK ESKOLARA

DEL COLE A CASA

SAIOA 7 URRATSETAN

1. AURKEZPENA
2. EGUNEROKO BIZITZAKO SINBOLOAK
3. BIZIPENA
4. JAINKOARI ENTZUN
5. ALKARRIZKETAN JARDUN
6. OTOITZEAN ADIERAZO
7. ETXERA EROAN...

1. AURKEZPENA

Saio honetan, familia lez, galdera egingo deutsagu geure buruari: Zer espero dogu eskolatik? Zer azpimarratzen dogu, zer eskatzen, hezkuntza eremuagazko hartu-emonean? Ze irispide dogu ikastetxea aukeratzean? Zer eskatzen deutsagu aukeratutako ikastetxeari? Zergaitik? Zelan konprometitzen gara hezkuntza alkarteagaz? Jesusen Ebanjeliotik, gure ustez, zerk izan beharko leuke lehentasuna gure seme eta alaben eskola-hezkuntzan?

“Ez dago egitekorik ederragorik eta, aldi berean, labain eta zorrotzagorik. Hezkuntza hil edo bizikoa da gizon eta emakumeen zorionerako eta gure gizartearen gerorako. Askotxo da jokoan doguna”, inoen euskal eleizbarrutietako gotzainek “Gaur egungo erronkak hezibidean” 2017ko Pastoral Idazkian, lantzen dihardugun gaiaren garrantzia berretsiz.

Egia esan, gure seme eta alaben hezkuntzak arduratu egiten gaitu. Haurdunaldian bertan hasten gara ia ikastetxe batean ala bestean martikulatzeko baldintzak beteten doguzan ala ez pentsatzen. Badakigu horren menpe dagoala neurri handi batean bere etorkizun ekonomikoa, bere prestaketa persona lez eta baita bere gizarteratzea be. Kezkatu egiten gara, eskola-eremura egokitzeko arazoren bat edo akademia zein harremanen arloan porroten bat gertatu daitekela-eta. Hain zuzen be egundoko estutasun eta zorigaiztoa eragin deikegu.

Bada kezkatzen ez dan gurasorik be, “hezi deiguezala”, guraso lez erantzukizuna etenbakoa dala eta familiak hezkuntza alkarteko kide dirala ahaztuz. Eta badira seme eta alaben erantzukizunak ikusterik gura ez eta arazo guztiak ikastetxeari eta irakasleei leporatzen deusiezanak.

Kontu horreen eta beste hainbaten inguruan jardungo dogu saio honetan.

Hasteko, dinamika bat egingo dogu eta honen bitartez hauxe esango deutsagu alkarri: nor garan eta non ikasi dogun.

HASIERAKO DINAMIKA

Nor naz eta non ikasi dot

Nor naz eta non ikasi dot



2. EGUNEROKO BIZITZAKO SINBOLOAK

Asko dira eskolarekin lotzen doguzan sinboloak. Zalantza barik, lepoan edo, gurpilduna izanik, tiraka daroagun motxila da horreetako bat. Etxetik eskolara eta eskolatik etxera joateko unea markatzen dau; agurra eta bueltako harrera.

Gure seme eta alabak eskolara doazanean, agurtzean, egunerako zerbait opatzen deutsegu edo aholkuren bat emoten. Liburuz, koadernoaz, agendaz, boligrafoz, hamaiketakoaz... beteta darioien motxila horretan, ilusinoa, konfiantza, lasaitasuna, bildurrak, presinoa... sartzen dogu.

Gogoratu daigun gure seme-alabek motxila prestatu eta eskolarako bidea hartzen dabene unea: maletan zer sartu gogoratzen deutsegu?, ze mezu, zirrara..., helarazoten deutsegu egunero?, zer esango leuskie Jesusek?

Idatzi edota marraztu erantzunak motxilan.



3. BIZIPENA

Orain, alde batetik gurasoek eta, bestetik, haurrek hausnarketa egingo dugu; gero bate-ratze-lana egingo da.

Amek eta aitek galdeketari erantzungo deutse: Delors txostenetik ataratako "hezkuntzaren lau zutabeak" dalakoan oinarritutako galdeketa da.

Ordenatu esaldiak 1etik 12ra (1a garrantzitsuena dalarik)

Nos gustaría que:

- Gure seme-alabak inguruko errealidadea ulertzen lagunduko deutsan jakintza jadetsi daiala.
- Talde-lanean jarduten irakatsi deieela.
- Ikastetxean aniztasuna landu daitela alderdi guztietan (erlijiosoa, etnikoa, funtzionala, sexuala,...).
- Gure seme-alabaren hezkuntza banan-banakoia izan daitela.
- Bizi diran sasoiko tresna, kontzeptu eta erreferentziak jadetsi daizala.
- Hartu-emonerako dituan gaitasunak landu daiezala.
- Gure seme-alabak bere burua eta bestea ezagutu daiala.
- Hezkuntzak persona lez osotasunean –gorputz eta burua, adimena, sentsibildadea, sen estetikoak, bakarkako erantzukizuna eta espiritualtasuna- garatzen lagundu deiola gure seme-alabari.
- Oroimena trebatu daiala. Buruz ikasteko eta ikasitakoa errealidadeagaz lotzeko gauza dan oroimena.
- Jakintza teorikoez gainera, praktikoak be emon deioezala.
- Ikastetxean kirol HEZIGARRIRAKO egitasmo bateratua egon daitela.
- Pentsamentu autonomo eta kritikoa garatzen lagundu deioela.

Esaldi bakotxaren aurrean kolore gorri, hori, berde edo azuleko puntua dago. Batu esaldiei emondako puntuak, kolorearen arabera. Orain 6. orrialdera jo eta jakin, emaitzaren arabera, zure seme eta alaben ikaskuntzaren ze alderdiri emoten deutsazun garrantzi gehiago.

GAJDERAK, ALKARRIZKETAN JARDUTEKO:

Ikaskuntzaren zutabeak irakurri ondoren, geure buruari galdetuko deutsagu:

Harritu egin gaitu galdeketaren emaitzak?

Galdeketaren emaitzak bat datoz seme-alaben hezkuntzaz dogun ikuspuntuagaz?

Zutaberen bat lehenetsiko geunke?

Zein zutabetan sartuko geunke FEDE hezkuntza?

Gure etxean, bardin lantzen doguz 4 zutabeak? Holan ez bada eta garrantzitsutzat jotzen badogu, zer aldatu geinke lantzeko?

SEME ETA ALABAK ESKOLARAKO MOTXILA PRESTATUKO DABE

Marrazkiak agertzen diran orrialdera jo, moztu eta motxilan sartuko doguz, behean garrantzitsuenak eta goian garrantzirik gitxien dabenak.



4. JAINKOARI ENTZUN

Arretaz irakurriko doguz San Lukasen Ebanjelioko txatalok eta gure barruan durundi egin daiela. Zer dinoskue?

“Ba ete da zuen artean aitarik, semeak arraina eskatu eta arrainaren orde zugea emongo deutsanik? Edo arrautza eskatu eta eskorpioia emongo deutsanik? Beraz, zuek, txarrak izanda, seme-alabei gauza onak emoten badakizue, zenbatez gehiago ez deutse zeruko zuen Aitak Espiritu Santua emongo eskatzen deutsenei?”

(Lk 11, 11-13)

Jesus hasiz joian, bai jakinduriaz, bai gorputzez, eta Jainkoak eta gizakiek gero eta gogokoago eben.

Lk 2,52)

EZAGUTZEN IKASI

Hau da, lagun bakotxak ikasi daiala bere ingurua ulertzen, gitxienez duintasunez bizitzeko, bere gaitasun profesionalak garatzeko eta besteakaz hartu-emonean izateko beste. Ulertzearen, ezagutzearen eta antzematearen gozamena.

EGITEN IKASI

Norbanakoak, kalifikazio profesionala jadedsteaz gainera, hainbat egoerari aurre egiteko, taldean lan egiteko lagungarri eta baliagarri izango dan gaitasuna jadetsi daiala.

ALKARREGAZ BIZITZEN IKASI

Bestea ulertzeko, baterako egitasmoak garatzeko, aniztasuna, alkar ulertzea eta bakea lako balioak errespetatuz, gatazkei aurre egiteko gaitasuna garatu.

IZATEN IKASI

Persona bakotxaren osoko garapena sustatu. Lagun bakotxa, unitate bat da, hau da, gorputz, buru, sentiberatasun, sen estetiko, bakarkako erantzukizun eta espiritualtasun jakin bat dau.

5. ALKARRIZKETAN JARDUN

HEZKUNTZAREN KRISTAU IKUSPUNTUA

“Bizirako bidea erakutsiko didazu” (Sal 15, 11). Gaur egungo erronkak hezibidean, euskal eleizbarrutietako gotzainek hezkuntzari buruz idatzi eben pastoral idazkian, honakoak jasoten dira::

1- Osoko hezkuntza. Personak heztea, “beste pertsona batzuei izan behar dutena izatera hel daitezen laguntzea da”. Horrek zera eskatzen dau: lagundu egin behar dala persona osotasunera heldu daiten alderdi guztietan: espiritua, adimena, afektibitatea, borondatea, gorputza eta alkarrea (45. zenb.).

ALKARRIZKETA: *Ezagutzen doguzan ikastetxeek, badabe osoko hezkuntzarako planteamenturik?, benetako eta eraginkorra da?, zein arlderdiri erantzuten deutso egokien eta zeini okerren?, egoki lantzen da alderdi transzendente, espiritual edo erlijiosoa?*

2- Persona, hezkuntzaren muin. “Hezkuntzak, izatez, pertsonalizatua izan behar du elkarte-testuinguruan. Beraz, heztea, bideratzea ere bada, ikasleei lagun egitea, beraien garapenaren alderdi guztietan, gela eta taldearen mugak gainditzen dituen tutoretza-jardueraren bidez, gertutik, banan-banan, arreta eskaintzea. Hezkuntzak pertsona bakoitzaren ahalik eta garapen handiena ahalbideratzen du, ikas-kuntza eta hazkunde pertsonalerako sustatuz eta ikasleen lankidetzeta eta partaidetzeta bilatuz beraien heziketarako” (49. zenb.).



ELKARRIZKETA: Zeure esperientzia kontuan hartuta, zenbateraino uste dozu hezigaia, benetan, hezkuntzaren muin dana? Aitatu ezagutzen dozu-zan adibideak. Zer hobetuko zeunke?

3- Aniztasuna hezi. “Ikasleen aniztasunari jaramon egiten dio beraien inguruabar pertsonal, familiako eta gizartekoak, beraien gaitasun, interes eta ikasteko erritmoak abiapuntutzat hartuz. Berezi, aparteko beharrak, desgaitasunen bat edo familia edo gizarte egoera bereziak bizi dituzten ikasleez arduratu behar du. Hezkuntzak ingurune segurua eskatzen du, era guztietako indarkeriatik aske den ingurune babestu, bero eta eroso; inguru horretan pertsona bakoitzari harrera, errespetua, maitasuna eta laguntasuna eskainiko zaio, ontasunean has dadin eta osotasunerako bideari ekin diezaion, edozein baldintza pertsonal, familiako edo sozialetik harago” (59. zenb.).

ELKARRIZKETA: Zeure esperientzia kontuan hartuta, jartzen jako arreta aniztasunari ikastetxeetan? Nola kudeatzen dira bazterketa edo abusua bezalako arazoak?

4- Hezkuntza elkartea. “[...] osoko hezkuntzaren alde jarduten dugu osoko hezkuntzaren alde jarduten dugu eta elkartasunean jarduten dugu, hezkuntza-elkarte (familia, ikastetxea, hezitzaileak, parrokia, mugimenduak, elkarteak, eta, azken finean, gizartea) bezala ezagutzen dugunaren barruan” (45. zenb.).

ELKARRIZKETA: Gure seme eta alaben esperientzia, beren hezkuntzan esku-hartzen duen hainbat eragilez osaturiko hezkuntza elkartearen ideian oinarritzen da? Zer hobetu beharko genuke?

5- Hezteko bokazioa eta hezitzaile-hezigai pertsonarteko lotura. “Hezitzailea eta bere eginkizuna, hezkuntza-elkartean, funtsezkoa eta ezinbestekoa da hezkuntzaren arloan. Hezkuntza askatasunen, hezigaiaren eta hezitzailearen elkartasunen, arteko elkartzearen testuinguruan ulertuz gero, pertsonarteko harreman hau funtsezkoa da. Hezitzaileei amore eta bihotz eman nahi diegu, beraien eginkizuna benetako bokazio eta misio bezala bizi dezaten” (53. zenb.).

ELKARRIZKETA: Zein esperientzia dugu irakasleekiko?, nola lagun dezakegu beren egiteko hezitzailea bokazio eta profesionaltasun handiagoz bizi dezaten?

Taldeak egin daitezke testuok lantzeko. Talde bakoitzak atal bat (5 dira) hartuko du; taldean txatala irakurri eta zer dinoskun komentatu. Seme-alaben hezkuntza dala-eta, ze hobekuntza bururatzen jaku?

6. OTOITZEAN ADIERAZO

Kandela piztu, haren inguruan jarri eta isiltasuna egingo dogu.

Lk 11, 11-13 txatala irakurriko dogu barriro be

HEZI

Hezte, txalupari motorra

ipintearen antzekoa da...

neurtu, pisatu, orekatu...

... eta dana martxan jarri beharra dago.

Horretarako,

ezinbestekoa da

marinel-sena...

pirata-sena...

olerkari-sena...

eta kilo eta erdi pazientzia kontzentratu

izatea...

Baina pozgarria da

lan egiten dan bitartean

txalupa horrek, ume horrek,

ur-gainean aurrera egingo dauala amestea.

Itsasontzi horrek gure hitz-zama

urrineko portuetarantz

urrineko irletarantz

eroango dauala amestea.

Egunen batean,

gure txalupa lo danean,

txalupa barrietan

gure banderak zutik iraungo dauala

amestea.

7. ETXERA EROAN...

GOIZERO AGUR EGITEKO ESALDIA:

3 GALDERA ARRATSALDE/GAU BAKOITZEAKO

Oso garrantzitsua da goizero ikastetxera joan aurretik helarazoten deutsegun mezua. Horregatik, pentsatu eizue esaldi bat, egunero umei esan eta euren "motxilan" eroan daien.

Eta goizeko jarduera bezain garrantzitsua da arratsalde ze jarreragaz egiten deutsegun harrera. Hausnartutako guztia kontuan hartuta, gure ustez zein da benetan egin behar deutsegun galdera garrantzitsua? Diseinatu etiketa zuon seme-alabaren motxilarako. Ipini euren motxila barruan, eurek eta zeuek ahaztu barik egin daizuen ekintza hau egunero.